# Bestelako Xedapenak

## INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

**353**

AGINDUA, 2010eko azaroaren 4koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, behi-esnearen erreferentzia-kopuruak 2010-2011 kanpainarako berresleitzeko prozedura eta irizpideak ezartzen dituena.

Otsailaren 11ko 26/1992 Dekretuaren 8. artikuluaren arabera, desagertutako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Sailak, hau da, egungo Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eskumena dauka aske geratzen den behi-esnearen erreferentzia-kopuruak berresleitzeko irizpideak ezartzeko, EAEaren funtsen kontura.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio bere baliabide ekonomikoen kargura finantzatzen diren esnegintza uzteko planak aplikatzean aske geratzen den behi-esnearen erreferentzia-kopuruak esleitzea eta berresleitzea.

Agindu honen bidez, EAEko abeltzainen artean 5.299 tona behi-esneko erreferentzia-kopurua berresleitzeko baldintza eta irizpideak ezartzen dira. Esne hori soberakina da eta erreserban dago, 2010-2011 denboraldian erabiltzeko.

Nabarmendu beharra dago berresleitzeko irizpideetan nekazari gazteei ematen zaien lehentasuna, «EAEko Nekazari Gazteen Plana»ren isla dena. Plan horren helburua da gazteak euskal nekazaritza sektorera erakartzea eta bertan gera daitezela. Plan hori Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordeak 2004ko apirilaren 7an onetsi zuen, eta bertan neurri zehatzak daude, sektorea gaztetzeko, nekazal ingurunearen bizi-kalitatea hobetzeko eta inbertsioak ustiategiak modernizatzeko.

Hori dela bide, kontsulta egokiak egin ondoren, txosten egokien ondoren eta ukitutako sektoreekin kontsultatu ondoren, honako hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa***.– Xedea.

1.– Erreserban dagoen behi-esnearen erreferentzia-kopuruak esleitzeko edo berresleitzeko prozedura, irizpideak eta baldintzak ezartzea da Agindu honen

# Otras Disposiciones

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA

**353**

ORDEN de 4 de noviembre de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se establece el procedimiento y criterios para la reasignación de cantidades de referencia de leche de vaca, para la campaña 2010-2011.

El Decreto 26/1992, de 11 de febrero, establece en su artículo 8 la competencia del extinto Departamento de Agricultura, Pesca y Alimentación, actual Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, para determinar los criterios de reasignación de cantidades de referencia de leche de vaca liberadas con cargo a fondos de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Así mismo, la Comunidad Autónoma del País Vasco ostenta la competencia para la asignación y reasignación de las cantidades de referencia de leche de vaca liberadas en aplicación de planes de abandono financiados con cargo a sus recursos económicos.

Por medio de la presente Orden se establecen los criterios y condiciones para la reasignación entre los ganaderos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de 5.299 tn de cantidad de referencia de leche de vaca remanentes disponibles en la reserva, a utilizar en el periodo 2010-2011.

Es de destacar la preferencia que en los criterios de reasignación se otorga a los jóvenes agricultores, que deriva del «Plan Jóvenes Agricultores/as de la CAPV», cuyo objeto es impulsar la incorporación y mantenimiento de los mismos en el sector agrario vasco. Este plan, que fue aprobado por acuerdo de 7 de abril de 2004 de la Comisión Delegada para Asuntos Económicos, contempla medidas específicas orientadas al rejuvenecimiento del sector, así como a la mejora de la calidad de vida en el medio rural, seguido de las explotaciones que hayan realizado inversiones para la modernización de las mismas.

En su virtud, una vez realizadas las oportunas consultas, previos los informes pertinentes y consulta con los sectores afectados,

RESUELVO:

***Primero***.– Objeto.

1.– Es objeto de la presente Orden establecer el procedimiento, los criterios y las condiciones con arreglo a las cuales se va a asignar o reasignar canti-

helburua. Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremuan dauden ustiategiak dauzkaten nekazari gazteen eta abeltzain ekoizleen artean banatuko dira kopuru horiek, Euskal Autonomia Erkidegoko esne-ekoizpeneko sektorea berrantolatzeko premiak asetzeko asmoarekin.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko abeltzainen artean esleitu edo berresleitu behar diren behi-esnearen erreferentzia-kopuruak, erreserban erabilgarri dagoen soberakina, alegia, guztira 5.299 tn dira.

***Bigarrena***.– Pertsona onuradunak.

1.– Behi-esnearen erreferentzia-kopuruen esleipen edo berresleipenak ondoko hauek jaso ditzakete: nekazari gazteek, abeltzain ekoizleek (pertsona juridiko nahiz fisikoak izan), eta elkarte-titularitatea duten eta bazkideen artean nekazari gazteak dituzten abere-ustiategiek. Ustiategiek Euskal Autonomia Erkidegoan egon behar dute, eta agindu honetako hirugarren artikuluan ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

2.– Dekretu honen ondorioetarako, nekazari gazteak zein direnen definizioa abenduaren 15eko 1857/2006 (EE) Erregelamenduaren 2. artikuluko 11. atalean zehazten da (produktuak ekoizten dituzten enpresa txiki eta ertainentzako estatuko diru-laguntzei buruzko Ituneko 87. eta 88. artikuluak aplikatzeari buruzkoa da erregelamendu hori).

***Hirugarrena***.– Baldintzak.

1.– Behi-esnearen erreferentzia-kopuruaren esleipena eskuratu ahalko dute jasotzea eskatzen eta jarraian zehaztuko diren baldintzak betetzen dituzten abeltzain ekoizle profesionalek:

a) Ustiategia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan kokaturikoa izatea.

b) Nekazaritzako Ustiategien Erregistroan izena emanda egotea.

c) Agindu hau indarrean jartzen den egunean erreferentzia-kopuruaren jabe izatea eta esnegintzan jardutea.

d) 2009-2010 kanpainan zehar esnea eta/edo esne-produktuak eman izana erreferentzia-kantitatearen % 90 gutxienez, betiere, jarraian zehaztuko diren salbuespen arrazoietatik bat edo beste agertzen ez bada:

– Esne-ekoizpenari eragin dion hondamen natural larria.

– Abereen osasunerako kanpainen ondorioz esne-behiak derrigorrez akabatu behar izana.

– Esne-ekoizpenerako jarritako bazka baliabideak edo ukuiluak istripuz suntsitu izana.

dades de referencia de leche de vaca disponibles en la reserva entre los ganaderos productores y entre los jóvenes agricultores cuyas explotaciones estén ubicadas en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, con la finalidad de atender las necesidades de reordenación del sector productor lácteo de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

2.– Las cantidades de referencia de leche de vaca de la reserva a asignar o reasignar entre las personas que sean ganaderas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, suponen 5.299 Tn que proceden de remanentes disponibles en la reserva.

***Segundo***.– Personas beneficiarias.

1.– Podrán ser personas beneficiarias de las asignaciones o reasignaciones de cantidades de referencia de leche de vaca los jóvenes agricultores, los ganaderos productores, sean personas físicas o jurídicas, y las explotaciones ganaderas con titularidad asociativa que incorporen como personas socias a jóvenes agricultores cuyas explotaciones estén ubicadas en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco y que cumplan las condiciones establecidas en el resuelvo tercero de la presente Orden.

2.– A los efectos de la presente Orden, se entenderá por joven agricultor lo dispuesto en el artículo 2, apartado 11 del Reglamento (CE) n.º 1857/2006, de 15 de diciembre, sobre aplicación de los artículos 87 y 88 del Tratado a las ayudas estatales para las pequeñas y medianas empresas dedicadas a la producción de productos.

***Tercero***.– Condiciones.

1.– Podrán obtener asignación de cantidad de referencia de leche de vaca los ganaderos productores profesionales que lo soliciten y que cumplan las condiciones siguientes:

a) Que su explotación esté ubicada en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Que esté inscrito en el Registro de Explotaciones Agrarias.

c) Que disponga de una cantidad de referencia asignada y que ejerza la actividad el día de la entrada en vigor de la presente Orden.

d) Que haya entregado durante la campaña 2009-2010 leche y/o productos lácteos al menos por el 90% de su cantidad de referencia, salvo que concurra alguna de las siguientes causas excepcionales:

– Catástrofe natural grave que afecte a la producción láctea.

– Sacrificio obligatorio de vacas lecheras como consecuencia de campañas de saneamiento ganadero.

– Destrucción accidental de los recursos forrajeros o de los establos destinados a la producción lechera.

– Ekoizlea aldi baterako gai ez izatea edo elbarritu izana, hark bere kabuz gauzatzen badu ustiapena.

– Behar bezala dokumentatutako beste edozein arrazoi, ustiapenaren nekazal azalera erabilgarria txikitzea ekartzen badu.

e) Esnegintza erabat eta behin betiko edo zati batean uzteko ezein programaz baliatu ez izatea.

f) Lehenago esleituriko erreferentzia-kopuru osoa edo haren zati bat beste ustiategiren bati transferitu ez izatea.

g) Kanpainan zehar aldi bateko lagapenak egin ez izana, halabeharrezko kasuetan salbu.

h) Abere-osasunari buruz indarrean dauden arauak betetzea.

i) Esnearen kalitate betekizunak betetzea edo kasuan kasuko lurralde historikoko Foru Aldundiarekin hitzartutako Esnearen Kalitatea Hobetzeko Programan sartuta egotea, eta ingurumen eta animalien ongizatearen eskakizunetara egokitzea edo egokitzeko aukera izatea.

j) Kuota-murrizketaren baten eraginik jasan ez izatea.

2.– Behi-esnearen erreferentzia-kopuruaren esleipena jaso dezakete eskatzen duten nekazari gazteek, baldin eta esne-kuotako kanpaina honetan (eskaera aurkezteko epera arte) abere-ustiategi berri batean instalatu badira edo instalatze prozesuan badaude, eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Instalatu diren edo instalatzera doazen ustiategia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan kokatzea.

b) Berrogei urte baino gutxiago izatea instalazioa egiterakoan.

c) Esnea ekoizten hasteko oinarri den nekazaritzako ustiategi baten titularrak izatea, jabetzan, gutxienez hamar urteko errentamenduan edo jaraunspenean.

d) Jarduera hasteko erabiliko duten ustiategia bideragarria izatea.

e) Esnearen kalitateko baldintzak betetzea, edo esnearen kalitatea hobetzeko lurralde historikoko foru-aldundiarekin itundutako programaren batean egotea.

3.– Behi-esnearen erreferentzia-kopuruaren esleipena jaso dezakete eskatzen duten nekazari gazteek, baldin eta esne-kuotako azken hiru kanpainetan (eskaera aurkezteko epera arte) abere-ustiategi berri batean instalatu badira edo instalatze prozesuan badaude, eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Ustiategia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan kokaturikoa izatea.

– Incapacidad provisional o invalidez del productor si se encarga por sí mismo de la explotación.

– Cualquier otra causa debidamente documentada que implique una disminución de la superficie agraria útil de la explotación.

e) Que no se haya acogido a programas de abandono total y definitivo o parcial de la producción láctea.

f) Que no haya transferido a otras explotaciones toda o parte de la cantidad de referencia que anteriormente tuviera asignadas.

g) Que no haya efectuado en la presente campaña cesiones temporales, salvo en casos de fuerza mayor.

h) Que cumpla con la normativa vigente en materia de sanidad animal.

i) Que cumpla con los requisitos de calidad de la leche o que esté incluido en un Programa de Mejora de la Calidad de la Leche concertado con la Diputación Foral del Territorio Histórico correspondiente y se adapte, o tenga la posibilidad de adaptarse, a las exigencias medio ambientales y de bienestar animal.

j) Que no se haya visto afectado por una reducción de cuota.

2.– Podrán obtener asignación de cantidad de referencia de leche de vaca los jóvenes agricultores que lo soliciten, que se hayan instalado o estén en proceso de instalación durante la presente campaña de cuota láctea y hasta la fecha de presentación de la solicitud, en una explotación ganadera nueva y que cumplan las condiciones siguientes:

a) Que la explotación donde se haya instalado o se vaya a instalar esté ubicada en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Que tenga menos de cuarenta años en el momento de su incorporación.

c) Que sea titular de una explotación agraria que sirva de base para el inicio de su producción lechera en propiedad, arrendamiento por un mínimo de diez años o a título de herencia.

d) Que la explotación con la que va a iniciar su actividad sea viable.

e) Que cumpla con los requisitos de calidad de la leche o esté incluido en un Programa de Mejora de la Calidad de la Leche concertado con la Diputación Foral del Territorio Histórico correspondiente.

3.– Podrán obtener asignación de cantidad de referencia de leche de vaca los jóvenes agricultores que lo soliciten, que se hayan instalado en cualquiera de las tres últimas campañas de cuota láctea o estén en proceso de instalación hasta la fecha de presentación de la solicitud y que cumplan las condiciones siguientes:

a) Que la explotación esté ubicada en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Berrogei urte baino gutxiago izatea instalazioa egiterakoan..

c) Ustiategi bakoitzean bi inkorporazio baino gehiago ez egotea.

d) Ustiategiari lotutako behi-esnearen erreferentzia-kopuruen transferentzia bat egitea.

e) Lehenago esleituriko erreferentzia-kopuru osoa edo haren zati bat beste ustiategiren bati transferitu ez izatea.

f) Abere-osasunari buruz indarrean dauden arauak betetzea.

g) Kuota-murrizketaren baten eraginik jasan ez izatea.

h) Esnearen kalitate betekizunak betetzea edo kasuan kasuko lurralde historikoko Foru Aldundiarekin hitzartutako Esnearen Kalitatea Hobetzeko Programan sartuta egotea, eta ingurumen eta animalien ongizatearen eskakizunetara egokitzea edo egokitzeko aukera izatea.

4.– Behi-esnearen erreferentzia-kopuruaren esleipena jaso dezakete eskatzen duten elkarte titulartasuneko abeltzaintza ustiategiek, baldin eta esne-kuotako azken hiru kanpainetan (eskaera aurkezteko epera arte) abere-ustiategi berri batean instalatu edo instalatze prozesuan dauden nekazari gazteak bazkideen artean onartu badituzte, eta baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Ustiategia Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde eremuan kokaturikoa izatea.

b) Ustiategian sartzen den abeltzain gazteak berrogei urte baino gutxiago izatea.

c) Sartuko den ustiategi horrek esne-kuota izatea.

d) Ustiategi bakoitzean bi inkorporazio baino gehiago ez egotea.

e) Sozietatean sartzeko aurreakordioa egotea.

f) Elkartean sartuko den abeltzain gaztearen konpromisoa, gutxienez 2 urtez elkartean egongo dela adierazten duena.

g) Lehenago esleituriko erreferentzia-kopuru osoa edo haren zati bat beste ustiategiren bati transferitu ez izatea.

h) Abere-osasunari buruz indarrean dauden arauak betetzea.

i) Kuota-murrizketaren baten eraginik jasan ez izatea.

j) Esnearen kalitate betekizunak betetzea edo kasuan kasuko lurralde historikoko Foru Aldundiarekin hitzartutako Esnearen Kalitatea Hobetzeko Progra-

b) Que tenga menos de cuarenta años en el momento de su incorporación.

c) Que no existan más de dos incorporaciones por explotación.

d) Que se efectúe una transferencia de cantidades de referencia de leche de vaca vinculada a la explotación.

e) Que no haya transferido a otras explotaciones toda o parte de la cantidad de referencia que anteriormente tuviera asignada.

f) Que cumpla con la normativa vigente en materia de sanidad animal.

g) Que no se haya visto afectado por una reducción de cuota.

h) Que cumpla con los requisitos de calidad de la leche o esté incluido en un Programa de Mejora de la Calidad de la Leche concertado con la Diputación Foral del Territorio Histórico correspondiente y se adapte, o tenga la posibilidad de adaptarse, a las exigencias medio ambientales y de bienestar animal.

4.– Podrán obtener asignación de cantidad de referencia de leche de vaca las explotaciones ganaderas de titularidad asociativa que lo soliciten, que incorporen como socios a su explotación a jóvenes agricultores que se hayan instalado en cualquiera de las tres ultimas campañas de cuota láctea o estén en proceso de instalación hasta la fecha de presentación de la solicitud que cumplan las condiciones siguientes:

a) Que la explotación esté ubicada en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) Que el joven ganadero que se incorpore tengan menos de cuarenta años en el momento de su incorporación.

c) Que la explotación a la que se va a incorporar disponga de cuota láctea.

d) Que no existan más de dos incorporaciones por explotación.

e) Que exista un preacuerdo de incorporación a la sociedad.

f) Compromiso del joven ganadero que se va a incorporar a la entidad asociativa y de que va a permanecer en ésta por un período mínimo de 2 años.

g) Que no haya transferido a otras explotaciones todo o parte de la cantidad de referencia que anteriormente tuviera asignada.

h) Que cumpla con la normativa vigente en materia de sanidad animal.

i) Que no se haya visto afectada por una reducción de cuota.

j) Que cumpla con los requisitos de calidad de la leche o estar incluido en un Programa de Mejora de la Calidad de la Leche concertado con la Diputación

man sartuta egotea, eta ingurumen eta animalien ongizatearen eskakizunetara egokitzea edo egokitzeko aukera izatea.

***Laugarrena***.– Eskabideak eta agiriak.

1.– Eskaerak Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariari zuzenduko zaizkio, eta foru aldundietako Nekazaritzako Lurralde Bulegoetan aurkeztuko dira. Bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitako modua ere erabili ahalko da, Dekretu honen I. eranskinean xede horretarako ezarritako ereduan eta hilabeteko epean dekretu hau argitaratzen den egunaren hurrengotik zenbatzen hasita.

2.– Agindu honetako 3. artikuluko 1. idatz-zatian sartzen diren abeltzainek, eskabidearekin batera, ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Titularraren edo titularren NANaren fotokopia.

b) Nekazaritzako ustiategiaren txartelaren fotokopia.

c) Nekazarien Gizarte Segurantzako kotizazioaren egiaztagiria, ustiategiko kide guztiena, eskabidea aurkezten den unekoa.

d) Abeltzainak esnearen higiene-kalitatearen baldintzak betetzen dituela edo abeltzaina esnearen kalitatea hobetzeko lurralde historikoko foru-aldundiarekin itundutako programaren batean dagoela frogatzen duen agiria.

e) Abere-osasunari buruz indarrean dauden arauak betetzen dituela frogatzen duen agiria.

f) Hala badagokio, 2009-2010 kanpainan emandako esne-kopurutik esnea edo esne-produktuak eman dizkion erosle baimendunaren ziurtagiria.

3.– Agindu honetako 2. artikuluko 3. idatz-zatian sartzen diren nekazari gazteek, eskabidearekin batera, ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia

b) Nekazaritzako ustiategiaren salerosketa-kontratuaren, errentamendu-kontratuaren edo jaraunspen-tituluaren kopia.

c) Ustiategiaren bideragarritasun-azterlana, kudeaketa zentro batek egina.

4.– Agindu honetako 3. artikuluko 3. idatz-zatian sartzen diren nekazari gazteek, eskabidearekin batera, ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia.

Foral del Territorio Histórico correspondiente y se adapte, o tenga la posibilidad de adaptarse, a las exigencias medio ambientales y de bienestar animal.

***Cuarto***.– Solicitudes y documentación.

1.– Las solicitudes irán dirigidas a la Directora de Agricultura y Ganadería del Gobierno Vasco y se presentarán en la Oficinas Comarcales Agrarias de las Diputaciones Forales o bien en la forma prevista en el artículo 38.4 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el modelo establecido al efecto en el anexo I de la presente Orden y en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente Orden.

2.– Las solicitudes que presenten los ganaderos incluidos en el párrafo 1 del resuelvo tercero de la presente Orden irán acompañadas de la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI del titular o titulares.

b) Fotocopia de la tarjeta de explotación agraria.

c) Acreditación de la cotización al Régimen Especial de Autónomos Agrarios, en el momento de presentar la solicitud, de todos los miembros de la explotación.

d) Justificante de cumplir los requisitos de calidad higiénica de la leche o de estar incluido en un programa de mejora de la calidad de la leche concertado con la Diputación Foral del Territorio Histórico correspondiente.

e) Justificante de cumplir con la normativa vigente en materia de sanidad animal.

f) En su caso, certificado del comprador autorizado al que haya entregado la leche o productos lácteos de la cantidad de leche entregada en la campaña 2009-2010.

3.– Las solicitudes que presenten los jóvenes agricultores incluidos en el párrafo 2 del resuelvo tercero de la presente Orden irán acompañadas de la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI del solicitante.

b) Copia del contrato de compraventa, arrendamiento o título de herencia de la explotación agraria.

c) Estudio de viabilidad de la explotación elaborado por un Centro de Gestión.

4.– Las solicitudes que presenten los jóvenes agricultores incluidos en el párrafo 3 del resuelvo tercero de la presente Orden irán acompañadas de la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI del solicitante.

b) Ustiategiari lotutako behi-esnearen erreferentziakopuruen transferentziako adierazpenaren kopia.

c) Nekazaritzako ustiategiaren txartelaren fotokopia.

d) Nekazarien Gizarte Segurantzako kotizazioaren egiaztagiria, ustiategiko kide guztiena, eskabidea aurkezten den unekoa.

e) Abeltzainak esnearen higiene-kalitatearen baldintzak betetzen dituela edo abeltzaina esnearen kalitatea hobetzeko lurralde historikoko foru-aldundiarekin itundutako programaren batean dagoela frogatzen duen agiria.

f) Abere-osasunari buruz indarrean dauden arauak betetzen dituela frogatzen duen agiria.

5.– Agindu honetako 3. artikuluko 4. idatz-zatian sartzen diren elkarte-titulartasuneko abere-ustiategiek, eskabidearekin batera, ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen NANaren fotokopia.

b) Gaztea sartuko den ustiategi horrek esne-kuota duela ziurtatzen duten agiriak.

c) Sozietatean sartzeko aurreakordioaren kopia.

d) Elkartean sartuko den abeltzain gaztearen konpromisoa, gutxienez 2 urtez elkartean egongo dela adierazten duena.

e) Ustiategiaren titularra den sozietatearen estatutuen kopia.

f) Nekazaritzako ustiategiaren txartelaren fotokopia.

g) Nekazarien Gizarte Segurantzako kotizazioaren egiaztagiria, ustiategiko kide guztiena, eskabidea aurkezten den unekoa.

h) Abeltzainak esnearen higiene-kalitatearen baldintzak betetzen dituela edo abeltzaina esnearen kalitatea hobetzeko lurralde historikoko foru-aldundiarekin itundutako programaren batean dagoela frogatzen duen agiria.

i) Abere-osasunari buruz indarrean dauden arauak betetzen dituela frogatzen duen agiria.

6.– Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak sumatzen badu aurkeztutako eskabidean akats edo okerren bat dagoela, ez dituela betetzen Agindu honetan ezartzen diren betekizunak, edo agiriak falta direla, eskabide-egileari jakinaraziko dio, eta 15 eguneko epea emango dio arazoa konpontzeko. Epe hori igaro eta arazoa konpondu ez badu, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren ebazpen baten bidez eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio

b) Copia de la declaración de transferencia de cantidades de referencia de leche de vaca vinculada a la explotación.

c) Fotocopia de la tarjeta de explotación agraria.

d) Acreditación de la cotización al Régimen Especial de Autónomos Agrarios, en el momento de presentar la solicitud, de todos los miembros de la explotación.

e) Justificante de cumplir los requisitos de calidad higiénica de la leche o de estar incluido en un programa de mejora de la calidad de la leche concertado con la Diputación Foral del Territorio Histórico correspondiente.

f) Justificante de cumplir con la normativa vigente en materia de sanidad animal.

5.– Las solicitudes que presenten las explotaciones ganaderas de titularidad asociativa incluidas en el párrafo 4 del resuelvo tercero de la presente Orden irán acompañadas de la siguiente documentación:

a) Fotocopia del DNI del solicitante.

b) Documentación acreditativa de que la explotación a la que se va a incorporar el joven dispone de cuota láctea.

c) Copia del preacuerdo de incorporación a la sociedad.

d) Compromiso del joven ganadero que se va a incorporar a la entidad asociativa de que va a permanecer en ésta por un período mínimo de 2 años.

e) Copia de los estatutos de la sociedad titular de la explotación.

f) Fotocopia de la tarjeta de explotación agraria.

g) Acreditación de la cotización al Régimen Especial de Autónomos Agrarios, en el momento de presentar la solicitud, de todos los miembros de la explotación.

h) Justificante de cumplir los requisitos de calidad higiénica de la leche o de estar incluido en un programa de mejora de la calidad de la leche concertado con la Diputación Foral del Territorio Histórico correspondiente.

i) Justificante de cumplir con la normativa vigente en materia de sanidad animal.

6.– Si la Dirección de Agricultura y Ganadería advirtiera en la solicitud presentada la existencia de algún defecto o inexactitud, que ésta no reuniera los requisitos establecidos en la presente Orden o que la documentación presentara fuera incompleta, lo comunicará a la persona solicitante, concediéndose un plazo de 15 días para que proceda a su subsanación. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución de la Directora de Agricultura

Prozedura Erkidearen Legeko 71. artikuluak ezarritakoarekin bat etorriz.

***Bosgarrena***.– Lehentasunezko egoerak.

Banatzeko dauden erreferentzia-kopuruak eskatzen duten abeltzainei esleitu edo berresleituko zaizkie, baldin eta agindu honetako 3. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, artikulu honetan ezarritako lehentasunen arabera, modu eta ordena honetan, taldeka sailkaturik:

1. taldea.– Nekazari gazteak, lehentasun-ordena honen arabera:

– A azpitaldea: esne-kuotako kanpaina honetan abere-ustiategi berri baten barruan instalatu direnak edo instalatzeko prozesuan daudenak.

– B azpitaldea: esne-kuota daukan ustiategi baten titulartasuna eskuratzen dutenak.

– C azpitaldea: elkarte-titulartasuneko abere-ustiategi batean bazkide gisa sartzen direnak (sozietate zibiletan sartzen direnak ere bai).

2. taldea.– Esne jardunarekin zuzenean zerikusia duen nekazal ustiapenean hobekuntzak egin dituzten abeltzain ekoizleak. Hobekuntza horiek azken bost urteetan gauzaturikoak izan behar dute eta inbertsioaren bolumena 60.000 eurotik gorakoa izan.

3. taldea.– Aurreko taldeetatik bakar batean ere ez dauden abeltzain ekoizleak.

***Seigarrena***.– Banatzeko eta esleitzeko modua.

1.– Eskuragarri dauden erreferentzia-kopuruen banaketa honela egingo da:

1. taldea.– Agindu honetako bosgarren artikuluko 1. taldean aurreikusitako egoeran dauden abeltzainen eskaerei gehienez 240.000 kg esleitu edo berresleituko zaizkie inkorporazio bakoitzeko, eta edonola ere 2 inkorporazio gehienez.

2. taldea.– Agindu honetako bosgarren artikuluko 2. taldean aurreikusitako egoeran dauden abeltzainen eskaerei gehienez 160.000 kg esleitu edo berresleituko zaizkie.

3. taldea.– Agindu honetako bosgarren artikuluko 3. taldean aurreikusitako egoeran dauden abeltzainen eskaerei kuotako 120.000 kg esleitu edo berresleituko zaizkie.

2.– Behi-esnearen erreferentzia-kopuruak nahikoak ez badira, aurreko idatz-zatian ezarritako kopuruen eta ordenaren arabera esleituko dira erabat agortu arte.

***Zazpigarrena***.– Kudeaketa.

1.– Dekretu honetan dauden behi-esnearen erreferentzia-kopuruen esleipenen kudeaketarako or-

y Ganadería, conforme lo establece el artículo 71 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Quinto***.– Situaciones prioritarias.

Las cantidades de referencia disponibles para su distribución, se asignarán o reasignarán entre aquellos ganaderos solicitantes que cumplan las condiciones establecidas en el resuelvo tercero de la presente Orden, de acuerdo a las situaciones prioritarias establecidas en el presente resuelvo, de la siguiente manera y por el siguiente orden según grupos:

Grupo 1.– Los jóvenes agricultores, de acuerdo al siguiente orden de prioridad:

– Subgrupo a: que se hayan instalado o estén en proceso de instalación durante la presente campaña de cuota láctea en una explotación ganadera nueva.

– Subgrupo b: que accedan a la titularidad de una explotación que ya cuenta con cuota láctea.

– Subgrupo c: que se incorporen como socios a una explotación ganadera con titularidad asociativa, incluidas las sociedades civiles.

Grupo 2.– Los ganaderos productores que hayan realizado mejoras en la explotación agraria directamente relacionadas con la actividad láctea en los cinco últimos años por un volumen de inversión superior a 60.000 euros.

Grupo 3.– Los ganaderos productores que no se hallen en ninguno de los grupos anteriores.

***Sexto***.– Forma de distribución y asignación.

1.– La distribución de las cantidades de referencia disponibles se realizaran siguiendo la siguiente forma:

Grupo 1.º.– A las solicitudes de los ganaderos que se encuentren incluidos en la situación prevista en el Grupo 1 del resuelvo quinto de la presente Orden, se les asignará o reasignará hasta un máximo de 240.000 kg por incorporación, con un máximo de dos incorporaciones.

Grupo 2.º.– A las solicitudes de los ganaderos que se encuentren incluidos en la situación prevista en el Grupo 2 del resuelvo quinto de la presente Orden, se les asignará o reasignará hasta un máximo de 160.000 kg.

Grupo 3.º.– A las solicitudes de los ganaderos que se encuentren incluidos en la situación prevista en el Grupo 3 del resuelvo quinto de la presente Orden, se les asignará o reasignará 120.000. kg de cuota.

2.– En el supuesto de insuficiencia de cantidades de referencia de leche de vaca, se realizarán las asignaciones por las cantidades y en el orden establecido en el apartado anterior, hasta su total agotamiento.

***Séptimo***.– Gestión.

1.– El órgano competente para la gestión de las asignaciones de cantidades de referencia de leche de

gano eskuduna Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza izango da.

2.– Erreferentzia-kopuruak berresleitzeko prozedura lehiaketa izango da. Beraren bidez, behi-esnearen erreferentzia-kopuru erabilgarrien esleipena egingo da, agindu honetako bosgarren eta seigarren artikuluetan ezarritako banatzeko eta esleitzeko moduen arabera.

3.– Deialdiaren kudeaketa Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek burutuko dute.

***Zortzigarrena***.– Ebazpena.

1.– Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariari dagokio esleitzeko eskabideei buruzko aldeko edo aurkako ebazpena ematea. Ebazpena arrazoitu egin behar da eta gutxienez honako alderdiak bildu beharko ditu:

– Esleitutako kopuruak.

– Aurkako ebazpena izan duten esleipen eskaerak eta horretarako izandako arrazoiak.

– Esleitutako kopuruen ondorio-aldia.

2.– Esleipen ebazpenak lau hilabeteko epean egin eta jakinaraziko dira gehienez dekretu hau indarrean jartzen denetik hasita. Epe hori beren beregiko ebazpenik jaso gabe igarotzen bada, eskaera gaitzetsitzat hartuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 44. artikulua aplikatuz.

3.– Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariak esleipena emateko edo ukatzeko egiten duen ebazpenaren aurka interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio Nekazaritzaren eta Arrantzaren Garapeneko sailburuordeari. Horretarako hilabeteko epea izango du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera, edo hiru hilabeteko epea administrazio-isiltasunak ondorioak izan eta biharamunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 114. eta 115. artikuluetan xedatuarekin bat etorriz.

4.– Aurreikusitako laguntzei buruzko ebazpena banan-banan jakinarazi behar bada ere, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariaren ebazpen baten bidez EHAAn argitaratuko da Agindu honen babesean berresleituko diren behi-esneraren erreferentzia-kopuruen onuradun izango direnen zerrenda; bertan, emandako kopuruak ere adieraziko dira.

***Bederatzigarrena***.– Gutxieneko kopurua eta ondorio-aldia.

1.– Ez dira esleituko edo berresleituko 5.000 kg-ko kuotatik beherako behi-esnearen erreferentzia-kopuruak.

vaca disponibles en el presente Decreto será la Dirección de Agricultura y Ganadería.

2.– El procedimiento para la concesión de las reasignaciones de cantidades de referencia será el de concurrencia competitiva a través del cual la asignación de cantidades de referencia de leche de vaca disponibles se realizará atendiendo a la forma de distribución y asignación establecida en los resuelvos quinto y sexto de la presente Orden.

3.– La gestión de la convocatoria se llevará a cabo por los servicios técnicos de la Dirección de Agricultura y Ganadería.

***Octavo***.– Resolución.

1.– Corresponde a la Directora de Agricultura y Ganadería la resolución de concesión o denegación de las solicitudes de asignación que será motivada y deberá contener, al menos, los extremos siguientes:

– Cantidades asignadas.

– Las solicitudes de asignación denegadas y su motivación.

– Período de efecto de las cantidades asignadas.

2.– La resolución de asignación se dictara y notificará en el plazo máximo de cuatro meses desde que surta efectos la presente Orden, transcurrido el cual sin resolución expresa ésta se considerará desestimada, en aplicación del artículo 44 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.– Contra la resolución de la Directora de Agricultura y Ganadería de concesión o denegación de la asignación, podrá el interesado interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Agricultura y Desarrollo Rural en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de la recepción de la notificación de dicha resolución, o en el plazo de tres meses a partir del día siguiente a aquel en que se produzcan los efectos del silencio administrativo, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y 115 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– Sin perjuicio de la notificación individualizada de la resolución de la Directora de Agricultura y Ganadería de concesión o denegación de las asignaciones de cantidad de referencia de leche de vaca, se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco la relación de beneficiarios de las asignaciones de cantidad de referencia de leche de vaca concedidas al amparo de la presente Orden, con la indicación de las cuantías asignadas a cada ganadero.

***Noveno***.– Cantidad mínima y período de efectos.

1.– No se asignarán o reasignarán cantidades de referencia de leche de vaca inferiores a 5.000 kg de cuota.

2.– Abeltzain bakoitzari esleitzen zaion kopuruak 2010-2011 aldiaren hasieratik izango ditu ondorioak.

***Hamargarrena***.– Itzulketa.

Agindu honetako 3. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako kasuan, elkarte batean sartu den abeltzain gazteak erakunde hori 2 urte baino lehenago uzten badu, esleitutako behi-esnearen erreferentzia-kopurua itzultzeko prozesua hasiko da.

AZKEN XEDAPENA.– Ondorioak.

Agindu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko azaroaren 4a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza,
Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

2.– La cantidad individual que se asigne a cada ganadero tendrá efecto desde el inicio del período lácteo 2010-2011.

***Décimo***.– Reversión.

En el supuesto que el joven ganadero que se haya incorporado a una entidad asociativa, tal y como dispone el apartado 4 del resuelvo tercero de la presente Orden, abandonara la citada entidad antes de transcurridos 2 años, se iniciará la reversión de la cantidad de referencia de leche de vaca asignada.

DISPOSICIÓN FINAL.– Efectos.

La presente Orden surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de noviembre de 2010.

La Consejera de Medio Ambiente,
Planificación Territorial, Agricultura y Pesca,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.

# I. ERANSKINA / *ANEXO I*

| EUSKO JAURLARITZA<br>*GOBIERNO VASCO*<br><br>Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila<br>*Dpto. de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca* | Behi-esnearen erreferentzi kopuru osagarria lortzeko eskabidea 2010-2011<br><br>*Solicitud de Asignación Suplementaria de Cantidad de Referencia de Leche de Vaca periodo 2010-2011* | Sarrera erregistroa<br>*Registro de entrada* |
|---|---|---|

I.– Ustiategia identifikatzeko datuak / *Datos de identificación de la explotación.*

I.1.– Titularra/*Titular*.
Deiturak eta izena / *Apellidos y nombre:* ..........................................................................................................................
NAN/*DNI*: ...................................... Jaioteguna / *Fecha de nacimiento:* ...................................................................................

I.2.– Ustiategiaren kokalekua / *Ubicación de la explotación.*
Ustiategiaren izena / *Denominación de la explotación:* .......................................................................................................
Ustiategien erregistroko zk. / *N.º de registro de explotación:* ..............................................................................................
Administrazio batza edo auzoa / *Junta Administrativa o barrio:* ..........................................................................................
Kalea/*Calle*: ...................................... Udalerria/*Municipio*: ................................ PK/*CP*: ..................................................
Lurralde Historikoa / *Territorio Histórico:* ..........................................................................................................................
Telefonoa/*Teléfono*: ............................................................................................................................................................

II.– Ekoizpena eta erreferentzi kopurua / *Producción y cantidad de referencia.*

II.1.– Erreferentzi kopuruaren titularra (*) / *Titular de la cantidad de referencia (*).*
Deiturak eta izena / *Apellidos y nombre:* ..........................................................................................................................
NAN/*DNI*: ...................................... Jaioteguna / *Fecha de nacimiento:* ...................................................................................

(*) Kanpaina honetan zehar ustiategiari lotutako transferentziarik tramitatu bada, adieraz ezazu transferentziaren hartzailearen izena. / *En caso de haber tramitado durante la presente campaña transferencia vinculada a la explotación, indicar el nombre del adquiriente.*

II.2.– Erreferentzi kopuru erabilgarria / *Cantidad de referencia disponible.*
Bai / *Sí* ☐
– Esne-enpresei saltzeko / *Para venta a empresas lácteas:* .......................................... kg/*kg*.
– Kontsumitzaileei zuzenean saltzeko / *Para venta directa a consumidores:* ............... kg/*kg*.

III.– Eskatzen den mota (jarri X bat dagokion aukeran). / *Modalidad que se solicita (señálese con un X lo que proceda).*

☐ Nekazari gazteen instalazio berria / *Nueva Instalación de jóvenes agricultores.*

☐ Nekazari gazteek ustiategiaren titulartasuna eskuratzea / *Acceso de jóvenes agricultores a la titularidad de la explotación.*

☐ Nekazari gaztea elkarte-izaerako ustiategi batean sartzea. / *Incorporación de joven agricultor a una explotación con titularidad asociativa.*

☐ Esnegintzarekin zuzenean loturako nekazaritzako ustiategietan hobekuntzak egin dituzten ekoizle abeltzainak, azken bost urteetan egindakoak eta 60.000 eurotik inbertsioak badira / *Ganaderos productores que hayan realizado mejoras en la explotación agraria directamente relacionadas con la actividad láctea en los cinco últimos años por un volumen de inversión superior a 60.000 euros.*

☐ Goian aipatutako taldeetan ez dauden abeltzainak / *Ganaderos que no se hallan en los grupos anteriores.*

☐ Eskatutako kopurua / *Cantidad que solicita:* ..................................................... kg.

IV.– Erantsitako agiriak / *Documentos que se adjuntan.*

☐ Ustiategiaren titularraren eta erreferentzi kopuruaren titularraren NANen fotokopia (ezberdinak badira) / *Fotocopia del DNI del titular de la explotación y del titular de la cantidad de referencia (en caso de ser distintos).*

☐ Nekazaritza-ustiategiaren txartelaren fotokopia. / *Fotocopia de la tarjeta de explotación agraria.*

☐ Nekazarien Gizarte Segurantzaren azken hilabeteko ordainagiria edo ordainagiriak. / *Recibo/s del pago del último mes Régimen Especial de Autónomos Agrarios.*

☐ Esnegintzan hasteko diren nekazarien kasuan, salerosteka, errentamenduaren edo kontratua, edota jaraunspenaren titulua. / *Copia del Contrato de compraventa, arrendamiento, o título de herencia, en el caso de jóvenes agricultores que inicien su actividad en el sector.*

☐ Ustiategiaren bideragarritasun-azterlana, kudeaketa zentro batek egina. / *Estudio de viabilidad de la explotación elaborado por un Centro de Gestión*

☐ Ustiategiaren abere-osasuneko ziurtagiriaren kopia. / *Copia del certificado de sanidad animal*

☐ Esnearen kalitate higienikoa betetzearen frogagiriak edo esnearen kalitatea hobetzeko programetan parte hartzearen froga-agiriak. / *Justificantes del cumplimiento de la calidad higiénica de la leche o de participar en programas de mejora de la calidad de la leche.*

☐ Abeltzain gaztea sozietatean sartzeko aurreakordioaren kopia. / *Copia del preacuerdo de incorporación del joven ganadero a la sociedad.*

☐ Beste batzuk, zehaztu. / *Otros, especificar:* ........................................................

Nik, .................................................. jn./and.ak, aipaturiko abere-ustiategiaren .. naizenonek, aitortzen dut agiri honetan agertzen diren datu guztiak egiazkoak direla, eta herri-erakunde eskudunak eska ditzakeen kontroletara makurtzen naizela.

*D. .................................................... como ........................................................ de la explotación ganadera citada, declaro que todos los datos que figuran en este documento son ciertos, sometiéndome expresamente a los controles que se me requieran desde la Institución Pública correspondiente.*

________________________ (e)n, 2010eko ______________________aren __________(e)(a)n.
*En ________________________ a ____ de ___________________________ de 2010.*

Sinadura/*Firma*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA ETA ABELTZAINTZAKO ZUZENDARIA
*SRA. DIRECTORA DE AGRICULTURA Y GANADERIA DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO.*

Datu Pertsonalak babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bidez eskuratutako zure datu pertsonalak datuak tratatzeko fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula. Hala nahi izanez gero, datuok eskuratu, zuzendu, ezeztatu eta datuoi aurka egiteko eskubideez balia zaitezke, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari idatzi bat bidaliz, hura baita tratamenduaren arduraduna (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

*En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, le informa que sus datos personales obtenidos mediante la cumplimentación de este impreso, van a ser incorporados para su tratamiento en un fichero automatizado. Si lo desea, puede ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición, previstos por la Ley, dirigiendo un escrito a la Dirección de Servicios del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco, como responsable del tratamiento, y con domicilio en c/ Donostia-San Sebastián, 1, en Vitoria-Gasteiz.*